

Martin Ugalderen herbesteko literaturaren kronika

[Egile ezezaguna]

Egin, 1990-11-15: 52.

Martin Ugalde izan zen herbesteko literaturari eskainitako egun horretan marko orokorra pointatzeko enkargua jaso zuena. 1936tik 1956ra doazen hogeitau urteak hartu zituen aztergai eta herbesteratzeak izan zituen hiru faseak gogoratuz hartu zion haria gaiari. Irun erori zenean ihes egindako 3.000 pertsonak osatu zuten lehen herbesteratuen uholdea. Bigarren Bilbo erori zenean atera zen eta hortik aurrerako hilabeteetan besteak.

Literatur kronikari ekin zion hogeitau urtetako urte mugarriak eta euskalguneak seinalatuz. 1950ean Ekin sortu zen Buenos Airesen, "Xabierto"ren birrargitalpen bat kalean jarritz. Urte berean "Eusko Gogoa" aldizkaria sortu zuen Zaitegik Guatemalan eta Orixeren "Euskaldunak" eman zen argitara Zarauzko Itxaropenan, "Egan" eta "Zeruko Argia" ere martxan jarritz.

Hogei urteko kronika horretan, beraz, Mexiko, Guatemala eta Buenos Aires izan ziren herbesteko euskalgune garrantzitsuenak eta horien azterketa gaineko bat burutu zuen Martin Ugaldek argitara eman ziren liburuen zerrenda urtez urte eginez.